

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

2003

AGINDUA, 2023ko apirilaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko 2022ko eta 2023ko laguntzak emateko deialdia egiten duena.

Agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak erregulatzen dituen azaroaren 19ko 447/2013 Dekretua 2013ko azaroaren 28ko EHAA n argitaratu zen, 227. zenbakian, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Dekretu horretan erregulatzen dira gaixotasun- eta behar-egoera objektiboan dauden pertsonentzako laguntzak, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak bete ditzaten, tratamenduok finantzaketa publikoaren xede direnean betiere.

Dekretu hori aldatu egin da; lehenik, azaroaren 14ko 247/2017 Dekretuaren bidez (azaroaren 17ko EHAA, 220. zenbakia.), 3. artikuluan ezartzen diren laguntzen onuradunen kolektiboa handitzeko, eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren zenbait apartatu aldatzeko, hobeto egokitu dadin Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen arazoaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 2.1 artikuluan ezarritakoari, eta Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak jarrai dezan aipatu laguntzak kudeatzeko eskumenak izaten.

Eta, bigarrenik, 2019ko otsailaren 5eko 16/2019 Dekretuaren bidez aldatu da (otsailaren 11ko EHAA, 29. zenbakia.), hartara Osasun Sistema Nazionalerako Irispide Unibertsalari buruzko Errege Lege Dekretua egokitzeko (7/2018, uztailaren 27koa). 7/2018 Errege Lege Dekretuak Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 3.1 eta 3 ter artikulua aldatzen ditu, eta ezartzen du osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titular direla, batetik, espainiar nazionalitatea dutenak eta Espainian bizilekua duten atzerritarrak, eta bestetik, Espainian erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerritarrak, espainiar nazionalitatea dutenen baldintza berberetan osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidea dutenak.

Aipatutako 447/2013 Dekretuak dioenez, Osasun sailburuaren esku egongo da laguntza horien deialdia egitea. Zehatz esanda, 2.2 artikulua arabera, «Osasuneko sailburuaren esku egongo da laguntzen deialdia egitea, honako hauek adieraziko dituen agindua emanez: laguntzak zehazteko aldiak, izapideei –zuzenekoei zein elektronikoei– buruzko zehaztapenak, eskaerak aurkezteko epea, tokia eta modua, laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak, bai eta horiek emateko baldintzak egiaztatzeko eskatutako agiriak eta eskaera-eredua ere; hori guztia dekretu honetan jasotako arauak garatuz eta aplikatuz».

Artikulu hori aplikatuz, 2013ko abenduaren 23ko Agindua onartu zen (2013ko abenduaren 31ko EHAA, 248. zenbakia), agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzetarako deialdia egiten duena 2013 eta 2014rako. Deialdi horretan, 2013ko uztailaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra bitartean eta 2014ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean egindako gastuetarako laguntzak arautzen dira.

Urtero argitaratu dira laguntzak arautzeko aginduak, eta azkena Osasun sailburuaren 2022ko apirilaren 12ko Agindua da (2022ko apirilaren 26ko EHAA, 80. zenbakia.), agindutako tratamendu

medikoak betetzea errazteko 2021eko eta 2022ko ekitaldiei dagozkien laguntzetarako deialdia egiten duena. Deialdi horretan 2021eko abenduaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra eta 2022ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartean egindako gastuetarako laguntzak nola eman arautzen da.

Aurrekoa kontuan hartuta, agindu honen bidez beste deialdi bat egiten da 2022-2023 aldirako.

Osasun sailburuaren 2023ko martxoaren 14ko Aginduaren bidez onartutako Osasun Sailaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan dago deialdi hau, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago argitaratuta, iragarki-oholean: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Horren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren eremua eta xedea.

Agindu honen xedea da Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak –finantzaketa publikoa izan dezaketen tratamenduak– betetzea errazteko laguntzen deialdia egitea. Laguntza horiek 2022ko abenduaren 1etik 31rako eta 2023ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30erako tarteetarako dira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi hau finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa bi milioi eta bostehun mila (2.500.000) eurokoa da. Baliabide horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz.

2.– Deialdi honetan guztira emango diren laguntzen zenbatekoak ez du diru-izendapen hori gaindituko, edo, baldin eta, indarrean dauden legeen arabera, aurrekontuetan aldaketak onartzen badira, ez du zenbateko hori eguneratuta sortzen den emaitza gaindituko.

3.– Halaber, deialdi honetarako izendatutako kreditua edo haren balizko eguneraketa agortu egiten badira, zirkunstantzia horri publikitatea ematearren, Osasuneko sailburuordeak ebazpen bat emango du, eta han zehaztuta utzi zein egunetan agortu zen kreditua; Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; guztia ere, azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuko 11. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

3. artikulua.– Laguntzen onuradunak.

1.– Gaixotasun- eta beharizan-egoera objektiboan dauden pertsonak eskatu ahal izango dituzte laguntzak, betiere betetzen badituzte laguntza horien onuraduna izateko azaroaren 19ko 447/2013 Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritako baldintzak (dekretu horren bidez, agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dira), eta laguntza horien xede den gastua deialdi honetan zehaztutako aldian egin badute. Zehatz esanda, hauek izan daitezke onuradun:

a) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, baldin eta Gizarte Segurantzaren pentsiodunak badira, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko osasun-sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

b) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, baldin eta legezko langabezia-egoeran badaude, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko osasun-sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

c) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, baldin eta diru-sarreak bermatzeko errenta jasotzen badute laneko errentak osatzeko eta Euskadiko osasun-sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

d) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titular horien onuradunak (hiru apartatuetako titularrez ari gara), baldin eta eta Euskadiko osasun-sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira.

e) Espainiako Estatuan erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerritarrak, baldin eta osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidea badute Espainiako nazionalitatea dutenen baldintza berberetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskubide hori aitortzeko emandako egiaztagiria badute.

2.– Zehapen administratibo edo penala jarri zaielako dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galdu duten pertsonak ezin izango dute lehiaketan parte hartu zigorrak ezarritako aldian. Era berean, ez dute parte hartzerik izango horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren bat dutenek, horretan barne direlarik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatzearen ondoriozkoak.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek emandako antzeko beste dirulaguntza batzuetan oraindik beste itzultze- edo zehapen-prozedurarik baldin badago hasita edo izapide-bidean, amaitu egin beharko da, onuradunei laguntzak eman edo ordaindu baino lehenago.

4.– Eskatu ahal izango da, bai onuradun izateko, bai emandako dirulaguntza likidatu arte onuradun izaten jarraitzeko, egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, pertsona horien baimenik gabe, halaxe baitago xedaturik azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.3 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2.e) artikuluan, bai eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 22.4 artikuluan ere.

Hala ere, eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, orduan, bere kabuz aurkeztu beharko ditu egiaztapen hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu mediko bat betetzeko, 2022ko abenduaren 1etik abenduaren 31rako eta 2023ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30erako tarreetan ordaindu behar izan dituzten zenbatekoak itzuliko zaizkie onuradunei, betiere finantzaketa publikoa jaso dezaketen tratamendu farmakologikoei, eta efektu eta osagarriei dagokienez.

2.– Halaber, ordaindu ahal izango dira 2023ko epealdi berean ordaindu behar diren zenbatekoak, hain justu ere Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu mediko bat betetzearen ondoriozkoak, finantzaketa publikoa jaso dezaketen produktu dietetikoei dagokienez.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Interesdunek prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikokoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin ahal izango dituzte; hartarako, administrazioan onartutako sinadura elektronikoko sistemen bitartez identifikatuko dira.

2.– Izapidetze elektronikoa arau hauen bidez dago erregulatutik: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua; eta Informatika eta Telekomunikazioen zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

3.– Eskabidearen ondorengo izapideak bide elektronikoz egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalaren bidez: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

4.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari-tza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetxeen Erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

5.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikazio eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak eskuragarri daude helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

6. artikulua.– Izapidetze erraztua.

1.– Oro har, izapidetze erraztuaren bitartez kudeatuko dira deialdi honetan araututako laguntzak, betiere organo kudeatzaileak eskabideak ebazteko behar besteko informazio badu, bai pertsona onuradun izatearen kondizioaz, bai laguntzaren xede den gastua egiteaz, eta eskatzaileek bai-mena eman badute berriaz aipatutako datu horiek egiaztatzeko.

2.– Beraz, honako pertsona hauek erabili ahal izango dute izapidetze erraztua:

a) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, Gizarte Segurantzaren pentsiodun gisa aseguratuta daudenak, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistema bermatzaile gisa duten banako osasun txartelaren titularrak eta beren onuradunak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz (hurrengo artikuluan dago araututa prozedura hori).

b) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, langabeziaren legeko egoeran daudenak, urtean 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak badituzte eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun txartelaren titularrak eta beren onuradunak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz (hurrengo artikuluan dago araututa prozedura hori).

c) Osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak, beren laneko errentak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemak bermatzen duen banako osasun-txartelaren titularrak badira, salbu eta diruz lagundu nahi den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada, gastu hori ordaintzeko beste eskabide bat egin beharko baita, ohiko prozedura erabiliz (hurrengo artikuluan dago erregulatuta prozedura hori).

d) Espainian erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe dauden atzerritarrak, baldin eta osasun-babeserako eta osasun-laguntzarako eskubidea badute espainiar nazionalitatea dutenen baldintza berberetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoak eskubide hori aitortzeko emandako egiaztagiria badute.

3.– Egoera horretan dauden pertsonen I. eranskinen eskabide-eredua bete beharko dute. Eskabide horretan, Administrazioari baimena emango zaio eskatzaileak adierazten duen kontuan ordainketa egiteko. Horretarako, lehenago egiaztatu beharko da, batetik, onuraduna nor den, eta, bestetik, laguntzaren helbururako gastua egin dela. Eskaera hori eskuragarri egongo da, halaber, Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren osasun-zentroetan eta Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, aurrez hitzordua eskatuta soilik, <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> helbidera sartuta.

4.– Izapidetze erraztuko prozeduraren informazio-fitxa, izapideak egiteko jarraibideak eta ereduak eskuragarri dituen eta eskabide-inprimakian sartzeko erabiltzen dena, helbide honetan eskura daiteke: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/0336320>

7. artikulua.– Ohiko izapidetzea.

1.– Izapidetze erraztua egiterik ez badago, ohiko izapidetzearen bidez kudeatuko dira deialdi honetan araututako laguntzak, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Hau da:

a) Pertsona eskatzaileak Administrazioari berariazko baimenik ematen ez badiu gastuari buruzko datuak egiaztatzeko.

b) Dirulaguntzaren xedea den gastua Euskadiko Osasun Sistematik kanpo egiten bada.

c) Baldin eta agindu honetako bigarren xedapen gehigarrian zehaztutako pertsonen arlokoa bada eskabideak izapidetzea.

2.– Kasu horretan, interesdunek, banako osasun-txartelaren bidez edo Euskal Osasun Sistemaren osasun-prestazioak jasotzeko bidea ematen duen dokumentu identifikatzailearen bidez nor diren egiaztatu ondoren, eskabidea aurkeztuko dute, agindu honetako II. eranskinen eredua behar bezala betez. Eredu horri honako dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

a) Onuraduna nor den egiaztatzen duen dokumentazioa.

b) Tratamendu aktiboaren orria edo errezetaren paperezko kopia, laguntzaren xede diren tratamendu medikoen preskripzioak jasotzen dituen.

c) Eskuratutako produktua pagatu izana justifikatzeko agiriak. Bi gauza agertu beharko dira: produktua zein den; eta dagokion epealdian zenbat diru jarri duen diruz lagundu daitezkeen gastuetarako.

Paperezko euskarrian edo euskarri elektronikoa (pdf formatuan) aurkeztu ahal izango da dokumentazioa.

3.– Eskabide-eredua eskuragarri egongo da Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren osasun-zentroetan eta Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, aurrez hitzordua eskatuta soilik, <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> helbidera sartuta.

4.– Izapidetze arrunteko prozeduraren informazio-fitxa, izapideak egiteko jarraibideak eta ereduak dituen eta eskabide-inprimakian sartzeko erabiltzen dena, helbide honetan eskura daiteke: <https://euskadi.eus/zerbitzuak/0336319>

8. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Dirulaguntzetarako eskabide-inprimakiak ez badira guztiz betetzen, edo haiekin batera ez bada adierazitako dokumentazioa aurkezten, eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio hutsegitea konpontzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko. Hori egin ezean, eskabidea

ukatutzat joko dela adieraziko zaio. Administrazioak eskabide horiei buruzko berariazko ebazpen bat eman eta jakinarazi beharko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

9. artikulua.– Izapidetze-hizkuntza.

Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea eta gainontzeko dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan eta prozeduran zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, horixe baitago ezarria Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan.

10. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Interesdunek nahikoa dute izapidetze erraztuko eskabide bat aurkeztea deialdi osorako, eta edozein unetan egin ahal izango dute, agindu hau ondorioak sortzen hasten denetik 2023ko abenduaren 10era arte.

2.– Izapidetze ohikoari dagokionez, deialdi bakoitzean interesdunek bi eskabide aurkeztu ahal izango dituzte gehienez ere; lehena, 2023ko ekainaren 10era arte, eta bigarrena, 2023ko abenduaren 10era arte, lehenengoan justifikatu gabeko gastuetarako.

3.– Eskabideak Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan aurkeztu ahal izango dira, Osakideztaren osasun-zentroetan, Zuzenean-Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan, aurrez hitzordua eskatuta soilik, <https://www.euskadi.eus/hitzordua-zuzenean> helbidera sartuta.

Era berean, eskabideak aurkeztu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoetan eta honako helbide hauetan: izapidetze errazturako, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0336320>; eta, izapidetze ohikorako, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0336319>.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bidez eman edo ukatuko zaizkie laguntzak onuradunei, organo kudeatzaileak proposatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan (<https://www.euskadi.eus/iragarki-aula-elektronikoa>) argitaratuz jakinaraziko da, bai eta Osasun Saileko dagokion lurralde-ordezkaritzan, osasun-zentroetan eta helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/0336320> eta <https://www.euskadi.eus/servicios/0336319>

2.– Planteatzen den izapidetze-era edozein delarik ere, laguntzaren helburuari dagokion gastua zehaztu ostean, laguntzak esleitzeko ebazpenak emango dira, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bidez, bat 2023ko hirugarren hiruhilekoan, eta bestea 2024ko lehen hiruhilekoan, hurrenez hurren, 2022ko abenduaren 1etik 2023ko maiatzaren 31ra bitartean egindako gastuengatik laguntzetarako, eta 2023ko ekainaren 1etik azaroaren 30era bitartean egindako gastuengatik laguntzetarako. Edozelan ere, izapidetze arruntean formulatutako eskabideen gaineko ebazpenek beharko dute izan koherenteak eskabideotan jasotako eskaera zehatzarekiko.

3.– Aurrekoa alde batera utzi gabe, izapidetze-era edozein delarik ere, 2023ko ekainaren 10az geroztik egiten bada eskabidea, laguntzak emateko ebazpen bakarra emango da 2024ko lehen hiruhilekoan, dirulaguntzari dagokion aldi zehar pertsona onuradunek egindako gastuei dagokienez.

4.– Laguntzen onuradun izaera aitortzeko eskabideak ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea izapidetzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartzen den egunetik hasita. Epe hori igarota, dirulaguntzarako eskaera ezetsitzat joko da, bera-

riazko ebazpenik ematen ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 51. artikuluko 9. paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako. Testu Bategina 1997ko azaroaren 11ko Dekretuak onartu zuen.

12. artikulua.– Ordaintzeko era.

Laguntzak emateko ebazpena argitaratzen denetik harako bi hilabeteko epean ordainduko zaizkie emandako laguntzak pertsona onuradunei.

13. artikulua.– Errekurtsoak.

Laguntzak baiesteko edo ezesteko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osasuneko sailburuordeari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea- ren urriaren 1eko 39/2015 Legeko 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako era eta epeetan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetan ezartzen den 18.000 eurotik beherako urteko errentetako diru-sarrereren muga, honako kopuru hauen arabera neurtuko da: 2022ko abenduan egindako gastuei dagokienez, 2021eko ekitaldian likidatutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpeneko aurrezpen eta likidazio-oinarri orokorraren laukian kontsignatutako zenbatekoa; 2023ko ekitaldian egindako gastuei dagokienez, 2022ko ekitaldian likidatutako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpeneko aurrezpen eta likidazio-oinarri orokorraren laukian kontsignatutako zenbatekoa.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako pertsonak II. eranskineko eredia bete beharko dute bere eskabidea izapidetzeko, ohiko izapidetzeari jarraikiz. Horretarako, MUFACE, MUGEJU edo ISFASek kudeatutako Gizarte Segurantzako araubide berezien titular eta 18.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten pentsiodunak izan beharko dute (klase pasiboak), betiere horien bermatzailea Estatuko Osasun Sistema bada; beren onuradunak ere bete beharko dute eredu hori, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta badaude, eta onartuta badaude Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen azaroaren 19ko 47/2013 Dekretuaren xedapen gehigarrietako bigarrenaren 1. eta 2. apartatuetan.

2.– Eskabidearekin batera, dokumentazio hau ere aurkeztu behar da:

a) MUFACE, MUGEJU edo ISFASek kudeatutako Gizarte Segurantzako araubide berezietan afiliaturik egotea eta pentsiodun-izaera (Klase Pasiboak eta Erregimen Orokorra) edo haietako pentsiodunen baten onuradun izatea egiaztatzen duen dokumentu ofizialaren kopia.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta dagoela ziurtatzen duen agiria.

c) Hartzen ari den tratamenduaren orria edo errezetaren paperezko kopia, laguntzaren xede diren tratamendu medikoen preskripzioak dakartzana.

d) Erositako produktuak ordaindu izanaren egiaztagiria, non adierazita dauden eskatzaileak dagokion aldian erositako produktuak eta egindako ekarpenak, elektronikoki izapidetu ez diren gastu lagungarriei edo Estatuko Osasun Sistemako langileek agindutako diruz lagundu daitezkeen gastuei dagokienez.

3.– Diru-sarrerei buruzko datuak (PFEZ aitordpena edo diru-sarrera nahikorik ez egoteagatik horiek egitera behartuta ez egotearen ziurtagiria) organo kudeatzaileak kontsultatuko ditu ofizioz, salbu eta interesdunak aurka egiteko eskubide arrazoitua baliatzen badu; kasu horretan, 2021eko eta 2022ko ekitaldietan likidatutako PFEZaren aitordpena aurkeztu beharko du.

Diru-sarrerak agindu honetan ezarritako baldintzetan egiaztatzeko soilik, Osasun Sailak behar-beharrezkoa den informazioa eskatuko die foru-ogasunei, NISAE Elkarreragingarritasun noko PFEZ-Errenta Maila Zerbitzuaren bidez.

4.– Kasu horietan, eskabideak 10. artikuluan aipatutako epean eta tokietan aurkeztuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, honako arau hauetan ezarritakoa aplikatu beharko da: Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, eta berorren erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua; Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua; 447/2013 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko Osasun Sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzekoa; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke interesdunek Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 19a.

Osasuneko sailburua,

MIREN GOTZONE SAGARDUI GOIKOETXEA.

2023ko apirilaren 27a, osteguna

Sarrera Erregistroko zigilua

I. ERANSKINA
2023

Barra-kodea

IZAPIDETZE
ERRAZTUALAGUNTZA-ESKABIDEA, AMAITU ARTE HARTZEKO TRATAMENDU MEDIKOA.
TRATAMENDUA EUSKADIKO OSASUN SISTEMAKO LANGILEEK AGINDU DIDATE ETA
FINANTZAKETA PUBLIKOA DAUKA.

ESKATZAILEA

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

NAN..... Telefonoa..... OTI kodea..... ESKATZAILEAREN ORDEZKARIA(*), TUTOREA(*), KURADOREA(*), LEGEZKO
ORDEZKARIA(*), AMA(**) EDO AITA(**)

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

NAN Telefonoa:

- (*) Ordezkaritza laguntzaren izapidetzea egiteko baina ez bada, nahikoa da titularrak eta ordezkariak eskabide hau sinatzea.
- (*) Laguntzaren eskatzailea legez ezgaitua izan bada, eskabidea tutoreak, kuradoreak edo legezko ordezkariak sinatuko du; epai judizialaren edo notario-ahalordearen bidez egiaztatuko du ordezkaritza, eta eskabideari gehituko dio. Era berean, ordezkariak erakunde baten izenean aurkeztuko balu eskabidea, dagokion notario-ahalordea gehitu beharko luke.
- (***) Laguntzaren eskatzailea emantzipatu gabeko adingabekoa bada, aitak edo amak sinatuko dute eskabidea, eta eskabideari familiako liburuaren kopia gehituko diote.

BANKUKO DATUAK (dagokion aukera jarri)

1.- Aldez aurretik onuraduna izanda, orduan eman nuen banku-kontuan ordaintzea eskatzen dut 2.- Eskatzen dut laguntza banku-kontu honetan ordain dadin (ni naiz itularra) :IBAN

(2. aukera markatu badu, IBAN datuak bete, eta banku-kontuaren zenbakia eta titularra agertzen diren orriko kopia gehitu behar ditu)

2023ko apirilaren 27a, osteguna

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO DATUAK

Helbidea: _____ Zk. _____ Esk _____ Pisua _____ Letra _____

Posta-kodea: Udalerria _____

Lurralde historikoa/Probintzia _____ Herrialdea _____

Posta elektronikoa _____

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU DITUDAN DOKUMENTUAK (aurkeztu baduzu, markatu) Ordezkarri-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, beharrezkoa bada. Titularra eta kontu-zenbakia agertzen diren orriaren kopia (**bankuko datuen atalean 2. aukera hautatu bada**).**DOKUMENTAZIOA KONTSULTATZEA/EGIAZTATZEA**

Osasun Sailak ofizioz kontsultatuko/egiaztatuko du (39/2015 Legearen 28. art.) administrazio eskudunean, bitarteko elektronikoen bidez edo beste bitarteko erabilgarri batzuen bidez, honako datu hauek:

- Pentsiodun gisa aseguratuen edota aseguratuen onuradunaren egoerei buruzko datuak
- Legezko langabezia-egoerari eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile izateari buruzko datuak
- Espainian bizi diren atzerritarren kasuan, erregistratu gabe edo egoiliar gisa baimendu gabe badaude, osasun-babesa eta osasun-laguntza onartzeko eskubideari buruzko datuak
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzei buruzko datuak (foru-ogasunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia), foru-ogasunekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharren ordainketan egunean egotei buruzko kontsulta-zerbitzuaren bidez, NISAE izeneko Elkarreragingarritasun nodokoa.

Interesduna aurka agertzen ez bada, arrazoiak emanez (Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. Artikulua). Aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango duzu hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/087600-capa2-eu.shtml>. Aurka eginez gero, baldintza hori betetzen dela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

ARDURAPEKO AITORPENAK**1.- Bateragarritasun-aitorpenak (zure aukera markatu, eta, BAI jartzen baduzu, hutsuneak bete)**

Adierazten dut jasotzen ari naizela herri-administrazioaren edo erakunde pribaturen batek emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabidea,

helburu bera duena **EZ** / **BAI** Zenbatekoa €. _____ Zein laguntza edo diru-sarrera _____**2.- Beste aitorpen batzuk**

Honako hau adierazten dut

- **EZ** dudala jaso inolako zehapen administratiborik edo penalik, laguntzak edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen didanik.
- **EZ** daukadala debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzen uzten ez didanik, batez ere sexu-diskriminazioarekin lotutakorik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean **EZ** nagoela.
- Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak **BETETZEN DITUDALA**.
- **BENETAKOAK** direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan agertzen diren **DATUAK**.

DATU PERTSONALEN BABESA

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak Osasun Publikoaren eta Adikzioen arloko laguntzak eta diru-laguntzak izeneko tratamendu-jarduerara bilduko dira.

Arduraduna: Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. **Helburua:** Osasun Publikoaren eta Adikzioen arloko diru-laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea. **Legitimazioa:** beharrezko tratamendua interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzeko. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. **Eskubideak:** zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere, informazio gehigarriazaltzen den bezala. **Informazio gehigarria:** datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara: <https://www.euskadi.eus/dbao/0336320>. **Araudia:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (<https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3>)

_____, 2023ko _____ aren _____ (a)

Sinadura (ESKATZAILEA) _____

Sinadura (ORDEZKARIA, TUTOREA, KURADOREA, LEGEZKO ORDEZKARIA, AMA EDO AITA) _____

2023ko apirilaren 27a, osteguna

Sarrera Erregistroko zigilua

II. ERANSKINA
2023

Barra-kodea

IZAPIDETZE
OHIKOALAGUNTZA-ESKABIDEA, AMAITU ARTE HARTZEKO TRATAMENDU MEDIKOA.
TRATAMENDUA EUSKADIKO OSASUN SISTEMAKO LANGILEEK AGINDU DIDATE ETA
FINANTZAKETA PUBLIKOA DAUKA

ESKATZAILEA

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

NAN..... Telefonoa..... OTI kodea..... ESKATZAILEAREN ORDEZKARIA(*), TUTOREA(*), KURADOREA(*), LEGEZKO
ORDEZKARIA(*), AMA(**) EDO AITA(**)

Izena: _____

Lehenengo abizena: _____

Bigarren abizena: _____

NAN Telefonoa:

- (*) Ordezkaritza laguntzaren izapidetzea egiteko baino ez bada, nahikoa da titularrak eta ordezkariak eskabide hau sinatzea.
- (*) Laguntzaren eskatzailea legez ezgaitua izan bada, eskabidea tutoreak, kuradoreak edo legezko ordezkariak sinatuko du; epai judizialaren edo notario-ahalordearen bidez egiaztatuko du ordezkaritza, eta eskabideari gehituko dio. Era berean, ordezkariak erakunde baten izenean aurkeztuko balu eskabidea, dagokion notario-ahalordea gehitu beharko luke.
- (**) Laguntzaren eskatzailea emantzipatu gabeko adingabekoa bada, aitak edo amak sinatuko dute eskabidea, eta eskabideari familiako liburuaren kopia gehituko diote.

BANKUKO DATUAK (dagokion aukera jarri)

1.- Aldez aurretik onuraduna izanda, orduan eman nuen banku-kontuan ordaintzea eskatzen dut 2.- Eskatzen dut laguntza banku-kontu honetan ordain dadin (ni naiz itularra) :IBAN

(2. aukera markatu badu, IBAN datuak bete, eta banku-kontuaren zenbakia eta titularra agertzen diren orriko kopia gehitu behar ditu)

2023ko apirilaren 27a, osteguna

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIORAKO DATUAK

Helbidea: _____ Zk. _____ Esk _____ Pisua _____ Letra _____

Posta-kodea: □□□□□ Udalerria _____

Lurralde historikoa/Probintzia _____ Herrialdea _____

Posta elektronikoa _____

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTUAK (hala bada, markatu)

- Ordezkarri-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa, beharrezkoa bada.
- Titularra eta banku-kontu zenbakia agertzen diren orriaren kopia (bankuko datuen atalean 2. aukera hautatu bada).
- Osasun Zerbitzu Publikoaren errezetak edo tratamendu aktiboaren orria.
- Botikaren jatorrizko tiketak edo jatorrizko faktura.
- Klase pasibo-izaera egiaztatzen duen dokumentazioa eta MUFACE, MUGEJU edo ISFASeko afiliazioa, eta EAEko udalerriren batean erroldatuta nagoela egiaztatzeko agiria (**MUFACE, ISFAS eta MUGEJUko klase pasiboetarako bakarrik**).

DOKUMENTAZIOA KONTSULTATZEA/EGIAZTATZEA

Osasun Sailak ofizioz kontsultatuko/egiaztatuko du (39/2015 Legearen 28) administrazio eskudunean, bitarteko elektronikoen bidez edo beste bitarteko erabilgarri batzuen bidez, honako datu hauek:

- Aseguruduna pentsioduna edo onuraduna izateari buruzko datuak
- Legezko langabezia-egoerari eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren jasotzaile izateari buruzko datuak
- Osasuna eta osasun-laguntza babesteko eskubidea aitortzeari buruzko datuak, Espainian erregistratuta edo egoiliar gisa baimenduta ez dauden atzeritarren kasuan
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari buruzko datuak (foru-ogasanak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia), foru-ogasanekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharren ordainketan egunean egoteari buruzko kontsulta-zerbitzuaren bidez, NISAren Elkarreragingarritasun noari dagokionez.
- Diru-sarreei buruzko datuak, deialdi honen Aginduan ezarritakoaren arabera (2021eko eta 2022ko ekitaldietan likidatutako PFEZaren aitortpena (MUFACE, MUGEJU eta ISFASeko klase pasiboentzat bakarrik) edo aitortpenik egin behar ez duzula egiaztatzeko agiria, NISAren Elkarreragingarritasun noizko Errenta – PFEZ mailako Zerbitzuaren bidez behar-beharrezkoak direnak.

Interesduna aurka agertzen ez bada, arrazoiak emanez (Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendua (EB) 21. artikulua. Aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango duzu hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/087600-capa2-eu.shtml>. Aurka eginez gero, baldintza hori betetzen dela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzu.

ARDURAPEKO AITORPENAK**1.- Bateragarritasun-aitorpenak (zure aukera markatu, eta, BAI jartzen baduzu, hutsuneak bete)**

Adierazten dut jasotzen ari naizela herri-administrazioaren edo erakunde pribaturen batek emandako laguntza, diru-sarrera edo baliabidea, helburu bera duena

EZ / **BAI** Zenbatekoa € _____ Zein laguntza edo diru-sarrera _____

2.- Beste aitortpen batzuk

Honako hau adierazten dut

- **EZ** dudala jaso inolako zehapen administratiborik edo penalik, laguntzak edo diru-laguntza publikoak lortzeko aukera kentzen didanik.
- **EZ** daukadala debekurik diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzen uzten ez didanik, batez ere sexu-diskriminazioarekin loturik.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zehapen-prozeduraren batean **EZ** nagoela.
- Laguntza hauen onuraduna izateko indarrean dauden legeek ezarritako baldintzak **BETETZEN DITUDALA**.
- **BENETAKOAK** direla eskabide honetan eta erantsitako dokumentuetan agertzen diren **DATUAK**.

DATU PERTSONALEN BABESA

Eskabidean agertzen diren datu pertsonalak Osasun Publikoaren eta Adikzioen arloko laguntzak eta diru-laguntzak izeneko tratamendu-jarduerara bilduko dira.

Arduraduna: Eusko Jaurlaritza. Osasun Saila. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. **Helburua:** Osasun Publikoaren eta Adikzioen arloko diru-laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea. **Legitimazioa:** beharrezko tratamendua interes publikoaren izenean edo tratamendua arduradunari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzeko. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. **Eskubideak:** zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere, informazio gehigarrian azaltzen den bezala. **Informazio gehigarria:** datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo helbide honetara: <https://www.euskadi.eus/dbao/0336319>. **Araudia:** Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://www.boe.es/doue/2016/119/L00001-00088.pdf>) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (<https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3>)

_____, 2023ko _____ aren _____ (a)

Sinadura (ESKATZAILEA) _____

Sinadura (ORDEZKARIA, TUTOREA, KURADOREA, LEGEZKO ORDEZKARIA, AMA EDO AITA) _____